

BAINA ZERTARAKO DIRA INTSEKTUAK ?

Loreak polinizatzen dituzte : Haien lanari esker loreak ernalduak dira. Loreek badakite eta intsektuak etorrazten dituzte nektarra eginez. Intsektuak gabe, uste dugu landareen %85 desagertuko liratekeela mundutik.

Materia birziklatzen dute : Intsektu batzuek landare hilak jaten dituzte (egurra, hostoak). Marruskatzean eta beren kakari esker, intsektuek landare hauek desagerrarazten dituzte.

Lurra ongarritzen dute : Beren kakari esker eta hondakiniei esker, intsektuek urtero onkailu tonak ekartzen dituzte luraren osasunerako.

Garbitzen dute : Intsektu askok kakak jaten dituzte eta lurpean desagerrarazten dituzte. Horiei esker, oihanen eta pentzeten garbiketa egiten dute urririk.

Hiltzen dute : Intsektuen harraparirik onenak intsektuak dira. (Mariorratzak, listafinak, katalingorriak...). Horiei esker, intsektuak eta beste animale txikiak ez dira gehiegi.



LITTORAL BASQUE
EUSKAL ITSASBAZTERRA

NATURALISTAREN GIDA TXIKIA


Baina nor bizi ote da pentze honetan ?



LITTORAL BASQUE
EUSKAL ITSASBAZTERRA

ZER DA INTSEKTU BAT?

Animale txiki horiek, denetan aurkitzen ditugu, eta ingurune bakoitza kolonizatzen dituzte eta horiek bakarrik kontutan hartuz, **animale erreinuko bi herenak** dira eta beharba gehiago! Gaur egun, **milioi bat espezie** ezagutzen baditugu ere, **30 aldiz gehiago** izaten ahal liratezke!



Nola osatua da intsektu bat?

- **Gorputza 3 partez osatua** (burua, toraxa eta abdomen)
- **2 begi**
- **Antena pare bat**
- **3 zango pare**
- **2 edo 4 hegal** (gehienetan)

Artropodoak ez bezala :

- **Araknidoak** → 8 zango
- **Oskoldunak** → 10 eta 14 zango artean
- **Miriapodoak** → 14 eta 1000 zango artean

EFEMEROPTEROAK

Iragankorrek : iraupen laburrekoak, insektu hauen bizitza bezala. **Hegal pare bat edo bi dituzte, pausan bertikalki atxikiak.** Aitzineko hegalak, askoz handiagoak dira. Gibelean hegalak ez dute forma bera. Sabela 2 edo 3 buztanekin luzatzen da. Antenak oso txikiak.



Maiatzako euli handia

TRIKOPTEROAK

"Trichos" ileak eta "pteron hegalak" : (intsektu hauen) hegalak ilez estaliak dira eta pausan teiltatu baten itxura hartzen dute.



Friganaren larba

→ Heldu forma



Frigana

PLEKOPTEROAK

(Gorputz luze bat eta bi hegal pare dituzte.)
Sabela bi buztanekin luzatzen da. Antena luzeak dira.


Harri eulia



ODONATUAK

(Grekotik "Masailezur horzdunak")

Bi hegal pare handi eta luze dituzte. **Bere sabela biziki luzea da.** Antenak biziki laburrak dira. Mariorratza famili honetakoa da.



Merkurioren orratzontzi



Udazkeneko habe

DERMAPTEROAK

("Derma" larrua eta "pteron" hegalak.) Haien hegal ñañoak larruzko zarpailen itxura dute. **Hegal pare bat dituzte, plegatuak eta gordetuak** hegal ñaño eta gogortuen azpian.

Ipur sarde



NEBROPTEROAK

("Hegal urduriak" erran nahi du.)

Bi hegal pare dituzte, oso handiak eta oso nerbiotuak dira. Teilatu baten itxura hartzen dute pausan direlarik. Famili honetan krisopoak badira.



Krisopo berde




Azkalafa

INSEKTU FAMILIA HANDIAK

ORTOPTEROAK

("Ortho" zuzen eta "pteran" hegalak : beren hegalak zuzenak dira sabelaren gainean).

Bi hegal pare zuzen dituzte, gorputzean zehar edo gorputzean learki (kilkerrak bezala). **Aitzineko hegalak, gogorak** dira. Gibekeko hankak oso handiak dira eta salto egiten dute.



Mattin salto berde handi



Larrapote gorritxu



Egiptoko larrapote


KOLEOPTEROAK

(Grekatik "koleos" kutxatila eta "pteron" hegala : Izan ere, **hegalak zorro batek hegalak babesten ditu.**


Famili honetan badira : kattalin gorriak, kakalardoak, arkanbeleak, kotxorroak.



Kattalingorri / Marigoringo



Odemera



Teleforo

HIMENOPTEROAK

(Grekotik "hymên" ezkontza eta "pteron" hegala.)

Aitzineko hegala eta gibealeko hegala kako txikiz elkartuak dira.

Bi hegala pare dituzte elgarrekin lotuak : bizkarrean gora (erleak) edo gorputzean zehar (liztorra).

Baina espezie batzuek hegala ez dute (xinaurriak). Burua gorputzetik bereizita da lepo mehe batekin. Espezieen arabera antenak handiak edo txikiak dira. Famili honetan badira : erleak, listafinak, xinaurriak.

Batzuek defentsarako **ezten** bat dute eta **ziztatzen ahal** gaituzte.



Erlastar



Xinaurri gorri



Liztor

LEPIDOPTEROAK

("Hegala ezkatat estaliak" Latinez)

Ongi ikusten diren bi hegala pare dituzte eta ezkatat koloretsuak dira.

Antena luzeak dituzte. Egunean pinpirinen antenak zabalagoak dira punttan.



Galtzagorri



Gaitun-tximeleta



Maniola

DIPTEROAK

(Grekotik "di" bi eta "pteron" hegala, hori da insektu hauen ezaugarria)

Bakarrik 2 hegala baditu. Orokorki antenak laburrak dira. Famili honetan badira : euliak, eltxoak, ezparak (taons)...



Listafin-euli



Euli



Eltxo

HOMOPTEROAK

(Aitzineko hegala trinkotasun berdina dute denetan.)

Bi hegala pare dituzte, nerbiodunak eta berdinak. Pausan, teilatu baten itxura hartzen dute. Burua aski zabala du. Famili honetan badira : ttirritak, landa zorriak (cercope)...



Zikada berde



Ttiritta / Txitar



Zorri berde

HETEROPTEROAK

(Aitzineko hegala ez dira trinkotasun berekoak.)

Bi hegala hegalarik dituzte kukutuak beste hegala pare batekin eta neurri batean gogortuak. Famili honetan dira : zimitzak.



Zimitz



Jendarme